

13E/2024 FORU AGINDUA, otsailaren 7koa, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Kontseilariarena, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko 2023-2027 Hizkuntza Plana onartzen duena.

XEDEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko 2023-2027 Hizkuntza Plana onartzea
ERREFERENTZIA:	Espediente kodea: 0000-OF01-2024-000009
UNITATE KUDEATZAILEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua Idazkaritza Tekniko Nagusia Tel: 848425239

103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak, helburutzat du Nafarroako berezko bi hizkuntzen, euskara eta gaztelania, izatearen errealitateari erantzuna ematea, 18/1986 Euskararen Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, aitortzen duen bezala.

Foru Dekretu horren 6. artikulua, hizkuntza plangintzari buruzkoak, xedatzen du Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko departamentuek beren planak egingo dituztela 3. artikuluan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta plan horien gutxieneko edukia zehazten du.

5. artikuluan, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua izendatzen da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko departamentuen arteko koordinazio organo izateko, aholkuak eman beharko dizkiena eta haiekin lankidetzan aritu beharko dena Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika eta plangintzaren arloetan dituen ildo estrategikoak ezartzeko. Alde horretatik, Euskarabideak eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak departamentuko Hizkuntza Plana idatzi dute.

Planak barne ditu departamentuaren egiturari buruzko erreferentzia bat, lege esparruaren deskribapena eta datu demografiko eta soziolinguistikoak. Abiapuntuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du (zenbat plazatan dagoen ezarrita euskararen ezagutza), langileen euskararen ezagutzari buruzko datuak ematen ditu, eta departamentuko komunikazio eta baliabideen egoera aztertzen du.



Era berean, ezarritako aldiak garatu beharko diren helburuak zehazten dira, hala nola langileen euskarazko prestakuntza, herritarrei arreta euskaraz emateko neurriak, idatzizko informazio elebiduna, hizkuntza paisaia (errotulazioa eta elementu fisikoak), lanpostu jakin batzuen hizkuntza eskakizuna ezartzea eta lizitatutako zerbitzuen arreta elebidunerako irizpideak. Plana garatzeko antolaketa egituran departamentuko lantalde bat, departamentuen arteko batzorde bat eta Euskarabideako Gobernu Kontseilua finkatzen dira, koordinazio eta garapenerako entitate gisa, eta, azkenik, ebaluazio eta jarraipen mekanismoak ezartzen dira.

Proposamenarekin bat etorritik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. 2023-2027 urteetarako, biak barne, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Hizkuntza Plana onartzea, 103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak ezartzen duen moduan eta plana Foru Agindu honen eranskin bezala gehitzea.

2. Plan hau Gobernu Irekiko atarian argitaratzea, ezagutzera emateko.

3. Foru Agindu hau eta bere eranskina igortzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutura, Memoria eta Bizikidetzako Zuzendaritza Nagusira, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusira eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Idazkaritza Nagusira, dagozkion ondorioetarako.

Iruñea, 2024ko otsailaren 7a

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO KONTSEILARIA
Ana Olló Hualde

